

Bizkaiko zaborren formula

Bizkaiak azpiegitura berri bat dauka orain lurraldeko zaborrak tratatzeko: Arraiz mendian eraikitako TMB (Tratamendu Mekaniko-Biologikoa) delakoa. Inaugurazio ekitaldian Jose Luis Bilbao ahaldun nagusiak Gipuzkoari eztenkada bota zion. Benetan al da inbidia emateko modukoa Arraizkoa?

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

BERRIAN Maite Asensio Lozano bildu duenez, “Azpiegiturak teknologia ‘modernoa’ erabiliko duela nabarmendu du ahaldun nagusiak. Hala, ‘inbidia emateko moduko’ instalazioa dela gaineratu du, Gipuzkoako bizilagunei begiratuta: ‘Beste batzuek gurako lukete guk arlo honetan lortu dugun maila lortzea. Hemenetik ez oso urrun, oraindik ez dakite zer egin biltzen duten zaborrarekin”.

Hain “inbidia emateko modukoa” ote da Bizkaiko hondakinen kudeaketa? Titulu eta foto deigarrien azpiko letra txikia leitu beharra dago hobeto jakiteko. TMB berria zertara datorren, alegia. Gipuzkoarako ere bai baitago TMB bat aurreikusia. Arraizen Bizkaiko Foru Aldundiak eraiki duen TMB berria loturik dago Zabalgarbi errauste plantaren beharrek. *Berrian* eta *Deian* ez dira zifrak berdin eskaintzen, baina bien kroniketan ere nabarmen ageri da TMB honek bertara eramandako zaborretatik gutxiena birziklatuko duela eta gehiena errausteko prestatu.

Hondakinez zerbait irakurri duenak badaki etxeetatik zaborrak ondo bereizita ez biltzekotan, *Ecoparque* formula dela errauste plantei janari hobea emateko modua, hala dira Katalunian eta hala izanen dira Baionan bezala Bilbon. Funtsean, etxeetako hondakinen %40 baino gehiago den organikoa (txarri-jana) lehertzeko. Organiko bustiak berotze ahalmena kentzen dio zaborrari: paperak ondo erretzen dira, plastikoez bero handia ematen dute, zapi eta oihalek ere bai, baina organikoa hezea da. Tratatu dezagun zaborra organikoa lehertzeko, bide batez ahal den gasa kenduz, eta zaborrari berotze ahalmena handitu diogu.



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

Iñaki Azkuna eta Jose Luis Bilbao TMBren inaugurazioan.

Baina diru kontuei ondo erreparatu. Formula honek baditu irabazle gutxi batzuk eta gehiago zabala osatzen duten petzeroak. Nork pagatu du TMB berria? Bizkaitarrek beren zergekin pagatu dituzte hor gastatu diren 43 milioi euroak. Zertarako? Zabalgarbi konpainia pribatuak kiskali behar dituen hondakinak erretzeko hobeto prestatu eskuratu ditzan. Beraz, Bizkaiko herri-tarrak kaleko kontainerrean (ez Hernanikoak bezalako poste itsusi horietan, Jainkoarren!) lagatako bere zabor nahasia pagatu du behin eta berriro: biltzeetatik pagatzen dio multinazional handi bati, lehortuz tratatzeko TMBa eraikitzeko pagatu du, Zabalgarbi konpainia pribatuak kudeatzen duen azpiegiturak eraikitzea pagatu zuen, zaborrak Zabalgarbin kiskaltzea pagatzen du, Zabalgarbi kiskaltzeko tona bakoitzaren 1/3 diren eskoria eta erraustak nonbait uztea pagatzen du ostera... Ez aipatzearen erretak sortutako kutsaduraren ondorioak, horiek kalkuluetatik kanpo geratzen dira beti. Bizkaiko hondakinen benetako kostea zehaztu beharko luke auditoria on batek... baldin eta egia bada diru publikoak urri direla eta behar sozialak izugarri handi.

Bizkaiko hondakinen formulak, hala ere, badauka are arazo larriagoa, ondoko lurraldeekin alderatzen hasita. Okerrena egiten dutela ere, Gipuzkoak eta Nafarroak oraindik erabakitzeke ahalmena daukate. Bizkaia urte luzetarako dago Zabalgarbiko inbertsioei kateaturik. Bihotza errauste planta duen kudeaketa eredu hori dela medio, bizkaitarrentzako gehiago birziklatzea arazoa da? ■

